



HERTZAINAK-EN DISKOFRAFIA BILDUMA

HERTZAINAK
(1984)

Taldearen diskorik ezagunena eta euskal rockaren ezinbestekoetako

bat. *Eh txo!, Pakean utzi arte* eta *Ta zer ez da berdin* kantuek bat egin zuten garaiko gazteen inkonformismo eta hausteko gogoarekin.

HAU DENA ALDATU NAHI NUKE
(1986)

Hainbat zorigaitz gainditu ondoren, bere lan ilunena kaleratu

zuen taldeak. Diskoarekin batera banatutako maxia —*Hertzainak, Galtzaile, Itxoiten nago* eta *Rockn'roll batzokian*— erantsi diote oraingoan.

SALDA BADAGO
(1988)

Ruper Ordorikak ekoitzi zuen, eta lehen aldiz folkaren sustraia

aldarrikatu zituzten mandolina, eskusoinua eta dultzainaren bidez. *No time for love* kantua irlandar baten bertsioa izan zen diskoko arrakastatsuen.

AMETS PREFABRIKATUAK
(1990)

Taldeak beste urrats bat egin zuen bere bilakaeran, eta hari

laukote baten laguntzarekin grabatu zuen *Aitormena*, taldearen amaieraren iragarpena eta bere kanturik komertzialena.

ESANAK

JOSU ZABALA (1989an)

«Gasteizen beharrean inguru euskaldun batean sortu izan bagina, litekeena da euskaldunek jipoitzea»

JOSU ZABALA (1985an)

«Gustatuko litzaiguke Euskaditik kanpora ateratzea, baina ez dakigu zentzurik ote duen»

JOSU ZABALA (1991n)

«Nazka ematen digute RRV siglek, guri inork ez zigun galdetu ea zer iritzi genion»

ZUZENEAN
(1991)

Bergarako Txibisto dantzalekuan grabatu zuten, bi egunetan eta Bingen

Mendizabal taldekide gisa, hamar urteko istorioa biltzen duen diskoa. Hemezortziko zerrendan, bere lan guztietako kantu ezagunenak daude.

DENBORAREN ORRATZAK
(1992)

Agur gisa grabatu zuen estudioko azken lana. Itxaro Bordaren

bi letra (*Irauten, Larru beltzak*) eta The Clashen *I fought the law*-ren bertsioa jasotzen ditu. Nahita izan edo ez, diskoari nostalgia kutsu handia dario.

MUNDU BERRIA DARAMAGU BIHOTZEAN

Hiru maxi konpaktu batean bildu ditu Oihukak: *Mundu berria*

daramagu bihotzean (*Guantanamo*-ren bertsio ezagunarekin), *Une etengabeak* (1992an grabatua) eta *Aitormena* (1989).

zen mugimenduaren indarra urte batzuk lehenago iragarri zuen Montoiak. «Euskal musika orain arte jasangaitza izan da. Krisia dago, baina krisialditik aterako da martxa. Euskadi mundu osoko lekuri punkiena da. Kaleetan dagoen martxa hori azaleratuko da, kosta ahala kosta. Horretarako gaude gu».

Diskoak izan zuen oihartzun itzelaz pittin bat gogaiturik, al-

datzea erabaki zuen taldeak bigarren diskora begira. «Aurreko diskoan jada esan genuen zer pentsatzen genuen, orain nola sentitzen garen islatu nahi dugu». Horrela laburbildu zuen *Hau dena aldatu nahi nuke*-ren filosofia, batez ere kantuen hitzei dagokienez. Horrekin batera zehaztu zuen taldearen balizko erabilera politikarekiko jarrera. «Jendeari esan ahal diezaiogun gauza bakarra da bere buruaren kontzientzia hartzeko, mugitze-

ko. Guk ez dugu alderdi politiko jakin bat babesten. Politikak zatiketa sortzen du jendearen artean. Gu gaude jendearen mobilizazioaren alde, kalean elkar topatzearen alde».

Salda badago eta *Amets prefabrikatuak* etorri ziren ondoren, eta bien artean Europar kontzertu batzuk Ruper Ordorikarekin. Disko bakoitzak taldearen arrakasta handitu zuen, baina batez ere *Aitormena* kantuen erakarri zion publiko

berria, belaunaldi bat gazteagoa.

Euskal Herrian zehar behin eta berriz jotzeak sortutako neke psikologikoa gainditzeko, kanpoko merkatura irteteko ahalegina egin zuen taldeak zuzeneko diskoarekin eta Aketo zigiluaren sorrerarekin. Asmoa ez zen nahi bezala gauzatu, eta hurrengo diskoa grabatzen hasi zirenerako dena uzteko erabakia errotua zegoen taldekideen artean.

Metak 2001

www.musikametak.com

Basque Electronic Diaspora #2 CD

Sagarroi "Meatzaidea" CD • MC

Lif CD

Etsaiak "Kaos" CD • MC

"Luzemetrala" VHS

Ruper Ordorika "Humengo Goizean" CD • MC

Betagarri "Remix" CD

Jabier Muguruza "Hain Guapa Zaude" CD

Kuraia CD